

A photograph of a woman and a man sitting on a large, thick tree branch that extends over a body of water. The woman, on the left, is smiling and looking towards the camera. She is wearing a dark-colored shirt and has her hair tied back. The man, on the right, is seen from the back, looking out over the water. He is shirtless. The background is a calm body of water with some green foliage visible in the upper part of the frame. A white rectangular box with text is overlaid on the right side of the image.

ZONA WAO, LURRA EZ DAGO SALGAI.

IRAKASLEEN GIDA

0. Aurkibidea

1. Proposamenaren deskribapena eta gai ardatzak. ⁰³

2. Helburuak. ⁰⁴

3. Proposamenaren irismena eta hartzaileak. ⁰⁵

4. Lan proposamenaren atalak eta sekuentziazioa. ⁰⁶

5. Proiektuaren garapena. ⁰⁷

6. Itxiera. ²⁸

7. Ebaluazioa. ²⁹

8. Gehiago Jakiteko. ³⁰

9. Eranskinak ³¹

▪ **Aurrezagutzen, aktibazioa.** ⁰⁷

▪ **Kokapena:**

1. Hego eta ipar globala, boterearen antolaketa. ⁰⁸
2. Amazoniako oihanaren desagertzea, guztion bizitza arriskuan. ¹⁰
3. Jatorrizko herriak, Amerikako lurraldeen zaintzaileak. ¹¹
4. Erauzketa-industria eta lurraren merkantilizazioa. ¹³
5. Ekozidua, bizitza akabatzen duten logikak. ¹⁶

▪ **Zona Wao dokumentalaren proiektzioa.** ¹⁷

▪ **Petrolio erauzketen ondorioak:**

- Eraginak naturan. ¹⁸
- Eraginak osasunean. ¹⁹
- Genero-eraginak. ²⁰
- Eraginak komunitatean. ²¹

▪ **Mundu ordenaren paradoxa.** ²³

▪ **Ondorioak:**

- Gordinaren irabazi bidegabeak. ²⁵
- Herritarron erantzukizuna. ²⁶
- EAE-ko erauzketa kasuak. ²⁷

1. Proposamenaren deskribapena eta gai ardatzak

Jarraian aurkeztuko den gidak erauzketa-praktiken inguruan hausnartzeko praktika, baliabide eta gogoeta ezberdinak luzatzea du helburu. Txostenaren muina Ekuadorreko Amazonian jazotzen ari diren petrolio erauzketak dira eta ekintza hauek eragiten dituzten giza- eta natura-ondorioak ikustarazi eta salatzeke, **Zona Wao laburmetraia** baliatuko da.

Filmeko gai eta azpi-gaiak oin hartuta galdera, ariketa eta hausnarketa ezberdinen bitartez, erauzketa-praktiken atzean dagoen armiarma sarea desegiten ahaleginduko gara. Hauek dira, besteak beste, eta azaletik badira ere, jorratuko diren gaiak:

- Amazoniako petrolio erauzketa eta ondare kolonialista, kapitalista eta patriarkalen arteko harreman eta elkarrenergina.
- Petrolio erauzketek naturan, osasunean, komunitatean eta generoan eragiten dituzten kalte eta ondorioak.
- Jatorrizko herrien errealtate, subiranotasun, eskubide eta erresistentziak, konkretuki, Ekuadorreko Amazoniako Wao komunitatean errealtatea.
- Ingurumenaren eskubideak eta krisi ekologikoaren ondorio larriak.
- Erauzketa praktiken mundu-hedapena eta EAE-ko erauzketa kasuak.
- Egungo ekoizpen eta kontsumo ereduaren aurrean norberak dauzkan erantzukizun eta konpromisoak.

Esan bezala, gai hauen dimentsio eta izaera mardul eta konplexua da baina proposamen honen helburua xumea denez, gaiekiko hurbilpen txiki bat egitea da asmoa.



2. Helburuak



Proposamen honek **Zona Wao dokumentala** oin hartuta eta bertan jorratzen diren gai-ildoetan oinarrituta, dokumentala ikuskatu eta honen inguruko lanketa kritikoa burutzea du helburu. Landuko den gai nagusia estraktibismoa izango den arren, auzi honen atzean dauden mundu mailako tendentzia ekonomiko, politiko, kultural eta ideologikoak ere arakatuko dira, aurreko atalean aipatu direnak, hain zuzen.

Era berean, hauek dira zeharka lortu nahi diren beste azpi-helburu batzuk; pentsamenduan eragin eta iruditegi zein diskurtsoa eraldatzea; eragiletza eta ekintzaitetasuna sustatzea; diskurtso ofiziala zalantzan jarri eta izaera kritikoa sustatzea.

3. Proposamenaren irismena eta hartzaileak

Proposamen hau gazte eta nerabeekin lantzeko pentsatuta dago. Hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken mailetak, Erdi zein Goi mailako zikloetako, Batxilergoko edo Unibertsitateko ikaslegoari zuzentzen da. Hezkuntza formalean lantzearen helburua arakatuko diren auzien diziplinarteko izaera da. Izan ere, oster, lanketa hau ikasgelan jorratzeko ikaste testuinguru zein erronka kitzikagarri bilakatu daiteke. Esaterako, estraktibismoaren, krisi klimatikoaren, kolonialismoaren edo kapitalismoaren ezaugarri edo ondorioak beste ikasgai askotan lantzen jarraitu daitezke.

Gida honek irakaslegoaren jakinmin, ardura eta konpromiso sozial eta anbertala piztu nahi du, bai eta hezkuntza erakundeak gizarte-eraldaketako testuinguru bilakatzea ere.

Dena den, proposamena hezkuntza ez formaleko erakundeetan landu daiteke ere, hala nola, Gazteleku edo kultur etxeetan eta tailer edo mintegi formatua izan dezake.



4. Lan proposamenaren atalak eta sekuntziak

Proposamen honek osotasunean, 7 ordu inguru irauten ditu. Betiere, eztabaidagaien eta lanketaren sakontasun mailaren arabera. Saioa egun oso batean edo saio ezberdinetan egin daiteke. Jarraian proposamenaren atalak eta denboralizazioa aurkeztuko dira.

1. **Aurrezagutzen aktibazioa.** 30 min Aurkezpen labur bat egin eta gero, dokumentalaren izenburuak, Zona Wao, iradokitzen dizkigun ideiekin ikasleen aurrezagutzak aktibatuko dira.
2. **Gaiaren kokapena.** 120 min Atal honek 5 azpi-puntu barnebiltzen ditu:
 - **Lehengoak,** 30 min Ipar eta Hego globalaren kontzeptua arakatu eta egun erabiltzen ditugun mapen muga eta noranzkoak nork erabakitzen dituen ezbaian jartzeaz gain, Ekuador mapan kokatu eta herrialde honen berezitasunak landuko ditu.
 - **Bigarrenak,** 20 min Amazonas oihanak munduaren bizirauperako duen garrantzia azpimarratuko du.
 - **Hirugarrenak,** 20 min jatorrizko herrien inguruko xehetasunak arakatuko ditu eta pertsona hauen errealtate, ondare eta garrantziaz arituko da.
 - **Laugarrenak,** 30 min erauzketa industriak zer diren, Latinoamerikan non, noiztik eta zer baliabide ustiatu (izan) diren eta industria honen ondorio zein klateak azpimarratuko ditu.
 - **Bosgarrenak,** 20 min ekoizidiora zer den azaldu eta gure gizarte antropozentristaren ezaugarriak islatzen ditu.
3. **Zona Wao dokumentalaren proiektzioa.** 30 min Filma ikusten ari diren bitartean ikasleek erauzketek natura, osasunean, komunitatean eta generoan dakartzaten eraginak behatu eta jaso beharko dituzte. Hau dela eta, filma ikusi aurretik eragin mota hauen inguruan solastea komeni da, zalantzak argitu eta jasoketa argi dutela ziurtatzeko. Ostean, dokumentala proiektatuko da. emakumeek jasaten dituzten indarkerien zerikusia.
4. **Petrolio erauzketen eraginak.** 60 min Petrolio erauzketek natura, osasun, komunitate eta generoan eragiten dituzten ondorioak landuko dira.
5. **Mundu ordenaren paradoxak.** 60 min Sakrifizio guneak zer diren ulertu eta ugaritasunaren paradoxa kontzeptuan oinarrituta, erauzketen kontraesan eta bidegabekeriak arakatuko dira.
6. **Ondorio nagusiak.** 30 min Jarduera ezberdinak planteatuko dira honako gai havetan oinarrituta: gordinaren irabazi bidegabeak, herritarron erantzukizuna, EAE-ko erauzketa kasuak.
7. **Itxiera.** 15 min Saioan jorratutako gai eta ondorioei itxiera emateko, jarduera labur bat jorratuko da.
8. **Prozesuan ikasitakoa ebaluatzen jarduera.** 30 min Lanketari amaiera emateko, eta ikasitakoaren inguruan gogoeta egiteko, norberak ebaluazio txantilo bat osatuko du. Txantilo hau jorratutako gaien sakontasuna ulertu edo pentsamendu aldaketarik egon den egiaztatzen erabiliko da.

5. Proiektuaren garapena: AURREZAGUTZEN, AKTIBAZIOA

ZONA WAO

50 urte baino gehiago daramatzate petrolio konpainia nazionalak eta nazioartekoek planetako bioaniztasun handieneko Amazoniako guneetatik petrolio ateratzen, komunitate indigenen bizitzak mehatxatuz eta Ekuadorko Gobernuaren konplizitatearekin. Sakrifizio Eremu izenez ezagutzen dira.

- Zer iradokitzen digu izenburuak?
- Non kokatuko zenuke Wao komunitatea?
Zein herrialdetan?
- Zer dakizu jatorrizko herrien inguruan?
- Zertan datza estraktibismoa?
- Zer dakizu petrolio erauzketen inguruan?
- Nondik eta nola ustiatzen da petrolio?



► Galdera hauen bitartez ikasleek gaiaren inguruan dakitena ezagutuko da pixkana kokatzen hasteko, lanketa hau egiteko zoaz **Ikasleen gidako (1. orrialdera)**: Kokapena 5 azpi ataletan banatzen da. Era berean, azpi atal bakoitzak galdera eta auzi ezberdinak planteatzen ditu. Jarraian galdera bakoitza erantzuteko informazioa aurkezteaz gain, galdera bakoitzean ikasleek egin eta osatu beharko dutena xedatzen da.

5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA (1. HEGO ETA IPAR GLOBALA, BOTEREAREN ANTOLAKETA)

▪ Zergatik dago mapa alderantziz?

Joaquin Torres-García artista uruguaiarrak mapa alderantziz-
katuz hegoaldea goian xedatu zuen europar arau eta logika
kolonialistak salatzeko.

"En realidad, nuestro Norte es el Sur. No debe haber Norte
para nosotros, excepto en oposición a nuestro Sur. Por lo
tanto, ahora le damos la vuelta al mapa, y entonces tenemos
una idea verdadera de nuestra posición, y no como el resto del
mundo desea. El punto de América, de ahora en adelante, para
siempre, insistentemente apunta al Sur, nuestro norte."
(Torres-García, J., 1943)

▷ Aipua irakurri, ulertu eta auzi honen inguruan eztabaidatu.


▪ Nork erabaki zuen iparraldeak goialdean eta hegoaldea behealdean egongo zirela?

Amerika kolonizatu aurretik Iparralde oso gutxitan kokatzen
zen mapen goialdean iluntasuna bertatik zetorrela uste
baitzen. Era berean, Mendebaldetik eguzkia sartzen denez,
puntu hau ere ez zen erreferentziatzat hartzen.

Iparraldeak mapen goialdean jartzeak zerikusia du Cristobal
Colón edo Fernando de Magallanes bezalako kolonizatzaileek
Iparraldeko izarriak jarraiki nabigatzen zutelako.

Bestalde, Mercatorrek 1569an egun erabiltzen dugun
maparen aitzindaria sortu zuen Lurraren kurbadura kontuan
hartu zuen lehena izan zelako. Detale hau oso lagungarria
izan zen, marineri xehetasun handiagorekin eta tarte
luzeagoz nabigatzea ahalbidetu zielako. Beraz, Iparraldeak
goian xedatzeak europarrek Amerika kolonizatzerakoan
ezarri zituzten itsas- eta merkataritza-ibilbideekin zerikusi
zuzena duela ondorioztatu dezakegu.

Mercatorren proiektzioa gure iruditegian hedatuenen dagoen
errepresentazioa den arren, Petersen proiektzioak konti-
nenteen tamaina modu proportzionalagoan irudikatzen du.
Izan ere, Mercatorren mapak poloetatik gertu dauden
lurraldeak handitu eta ekuatorekoak murrizten ditu, ikuspegi
eurozentrista gailenduz.



▷ Erakutsi Mafaldaren "El espacio no tiene ni arriba ni abajo" Zein
esanahi edo sinbolismo izan dezake honek? Komikian oinarrituta,
maparen noranzkoaren inguruan hausnartu eta eztabaidatu.



5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA (1. HEGO ETA IPAR GLOBALA, BOTEREAREN ANTOLAKETA)

• Zertaz ari gara Ipar edo Hego globalaz ari garenean?

Iparalde/Hegoalde banaketak mundua antolatzeko ikuspegi historiko eta geopolitikoa islatzen du, eta egungo gizartearen botere-harreman desorekatuaren adierazle da. Mundua ulertzeko modu honen arabera, ekonomia, politika edo kulturari dagokionean, Hegoa Iparren mende dago.

Ipar Globalak herrialde industrializatu, aberats eta boteret-suak jasotzen ditu hala nola, Europa zein Ipar Amerikako herrialdeak, Japonia eta Australia. Herrialde hauek praktika kolonialista zein inperialisten eta ekonomia globalaren kontrolaren bitartez lortu dute aberastasuna eta boterea metatzea.

Hego Globalak aldiz, historikoki kolonizatuak eta pobretuak izan diren herrialdeak biltzen ditu. Hauen artean, Latino-amerika, Afrika, Asia eta Ozeaniako herrialde gehienak daude. Herrialde guzti hauetako baliabideak, mendeetan zehar Ipar globalaren bizimodu eta funtzionamenduaren onurarako ustiatuak eta arpilatuak izan dira.

Bestalde, Boaventura de Sousa Santosek, Hegoaldeko Epistemologiak lanean Hegoaldea geografikoa baino, metaforikoa dela dio, baztertuak diren gehiengoei egiten dielako erreferentzia. Hortaz, Hegoalde globala baino, Hegoalde globalak daudela aldarrikatzen du.

"El Sur global no es entonces un concepto geográfico, aun cuando la gran mayoría de estas poblaciones viven en países del hemisferio Sur. Es más bien una metáfora del sufrimiento

humano causado por el capitalismo y el colonialismo a nivel global y de la resistencia para superarlo o minimizarlo. Es por eso un Sur anticapitalista, anticolonial y anti-imperialista. Es un Sur que existe también en el Norte global, en la forma de poblaciones excluidas, silenciadas y marginadas como son los inmigrantes sin papeles, los desempleados, las minorías étnicas o religiosas, las víctimas de sexismo, la homofobia y el racismo."


► Ipar/hego globalaren banaketa gaian kokatu eta auzi honen inguruan eztabaidatu.

GALDERA OSAGARRIA

Zergatik diogu Ekuador munduaren erdian dagoela?

Ekuadorrek 'munduaren erdia' esan nahi du. Frantziako Misio Geodesikoak definitu zuen lurralde honetan zegoela munduaren erdigunea. 1734tik 1744ra, Frantziako Zientzien Akademiak hainbat espedizio gauzatu zituen Lurraren forma zehazteko. Misio Geodesiko Frantsesak Isaac Newtonen teoria egiaztatu zuen, hau da, Lur planeta Poloetan txikitzen dela, eta, Ekuadorren, ekuatorearen edo 0 paraleloaren inguruan zabalagoa dela.

► Auzi honen inguruan eztabaidatu eta pentsatu nola eragiten dien balio mota hauek hegoaldearen iruditegi eta subjektibitatearen eraikuntzari.



Ekuatorea Ipar eta Hego hemisferioa banatzen duen alegiazko lerroa da eta beraz, puntu hau ez dago ez hego hemisferioan ez ipar hemisferioan, beraz, munduaren erdialdea dela esan dezakegu.

Toki bat Ipar hemisferioan badago, positiboa da; aitzitik, Hego hemisferioan badago, negatiboa. Iparraldean 0° eta 90° artean eta hegoaldean 0° eta -90° artean dago. Honek hurrengo galderara garamatza.

5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA. (2. AMAZONIako OIHANAREN DESAGERTZEA, GUZTION BIZITZA ARRISKUAN.)

GALDERA OSAGARRIA

Non kokatuko zenuke Amazoniako oihana?

Oihanak Peru, Ekuador, Kolonbia, Venezuela, Brasil, Bolivia, Guyana, Surinam eta Guyana frantsesa hartzen ditu eta Hego Amerikako lurraldearen % 40 estaltzen du. Amazonas ibaia Perun jaio eta Brasileko Ozeano Atlantikoan amaitzen da.


▪ Zergatik da hain garrantzitsua Amazonia munduaren biziraupenerako?

Amazoniaren osasunak guztioi eragiten digu zuzenean. Amazonia lurrraren birrikak dira. Oihana gai da urtean 2.400 milioi tona CO2 xurgatzeko, hau da, mundura igortzen den CO2 guztiaren laurdena. Fotosintesiaren bitartez Amazoniak munduko oxigenoaren % 20 inguru ekoizten du eta karbono dioxido kantitate handiak xurgatzen dituenek, krisi klimatikoari aurre egiten laguntzen du. Oihanik gabe, berotegi-efektuko gasen kontzentrazioak nabarmen egingo luke gora eta berotegi efektua asko bizkortuko litzateke

Bestalde, Amazoniako oihanak berebiziko garrantzia du uraren zikloari dagokionean ur-lurruna atmosferara askatzen baitu. Honek eragin zuzena du mundu mailako euriteen eraketan.

Gainera, Amazonia Munduko txokorik bioanitzenetarikoa da eta milaka landare, animalia eta mikroorganismo espezieen etxea da. Ezagutzen diren espezie guztien % 10 inguru hartzen ditu.

Azkenik, Amazonia jatorrizko herri ugariaren lurralde eta etxea da eta pertsona hauen bizimodu, kultura eta espiritualitatearen biziraupenerako ezinbesteko da.



5. proiektuaren garapena: KOKAPENA. (3. JATORRIZKO HERRIAK, AMERIKAKO LURRALDEEN ZAINZAILAK.)

▪ Zeintzuk dira filmaren protagonistak?

Woorani komunitatea Ekuadorko Amazoniako oihanean bizi den etnia indigenetako bat da. Gutxi gorabehera 3 mila biztanle ditu Pastaza, Napo eta Orellana probintzietan.

Belaunaldietan zehar Wooranitarrek ehiztari-biltzaileak izan dira eta arkuak, lantzak eta zerbatanak erabiltzen zituzten tximuak, tapirrak edo hegaztiak ehizatzen. Wooranien kosmobisioa naturarekin oso lotuta dago.

XX. mendearen bigarren erdian, kanpo eraginaren ondorioz, herri honen bizimodua aldatzen hasi zen, batez ere misio erlijioso eta petrolio-enpresen agerpenagatik. Harrezkeroztik, Wooranitarrek aktiboki borrokatzen dute euren lurralde eta etxe den oihana babesteko.

▷ *Woorani komunitatearen inguruko informazioa aurkeztu eta gero pertsona talde honen izena idatzi.*


▪ Zergatik deitzen diegu komunitatea indigenei "jatorrizko herriak"?

"Jatorrizko herriak" terminoaren erabilerak iruditegi kolonialak ezarritako mespretxuzko adierak baztertzen ditu, esaterako "indio/a" kontzeptua. Bestalde, jatorrizko deritzegunean, herri hauek kolonizatzaileak Amerikara iritsi baino askoz lehenago existitzen zirela aitortzen dugu. Bai eta, antzinako biztanle gisa duen benetakotasuna ere.

Gainera, herriak diogunean, herrien pluraltasuna eta euren arteko aniztasun kulturala nabarmentzen dugu, izan ere, herri bakoitzak bere mundu-ikuskera, hizkuntza eta bizi zein antolatze moduak ditu.

Kolonizazioa ez zen soilik lurralde-inbasio bat izan, sistema politiko, erlijioso, ekonomiko eta kulturalaren inposaketa baizik. Kolonizazioak "jatorrizko herriei" beren autonomia eta etorkizunari buruz erabakitze eskubidea kendu zien. Horregatik, termino honek herri hauen eta beren lurraldeen subiranotasun historikoa eta autodeterminazioarako eskubidea ere aldarrikatzen ditu.

▷ *Jatorrizko herrien terminoaren atzean zer dagoen arakatu, auzi honen inguruan eztabaidatu eta ideia gako bat idatzi.*



5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA. (3. JATORRIZKO HERRIAK, AMERIKAKO LURRALDEEN ZAINZTAILEAK.)

• Latinoamerikan zein beste jatorrizko herri ezagutzen dituzu? Gai izango zinateke hauetako batzuk mapan kokatzeko?

Latinoamerikan 500 komunitate indigena baino gehiago bizi dira gaur egun, Patagoniatik Mexikoko iparralderaino doazenak.


Adibide gutxi batzuk: Maputxeak gaur egungo Argentinan eta Txilen. Aimarak gaur egungo Argentina, Bolivia, Peru eta Txilen. Guaraniak gaur egungo Argentina, Brasil, Bolivia eta Paraguayn. Quechuak gaur egungo Argentina, Bolivia, Peru eta Txilen. Garifunak gaur egungo Guatemala, Honduras eta Nikaraguan. Maiak gaur egungo Guatemala eta Mexikon. Nahuak Mexikon.

Ekuadorreko Amazonian bakarrik 11 komunitate indigena baino gehiago bizi dira. Herri bakoitzak bere antzinako bizimodua, hizkuntza, kultura eta berezitasun propioak ditu: Kichwak, Waoraniak, Shuarrak, Saraguroak, Cofanak, Sionak, Secoyak, Saparak, Andwak, Achuararak, Shiwiarrak etab.

GALDERA OSAGARRIA

Zer dago “gaur egungo lurralde” adieraren atzean?

Europarrek Amerika, Afrika edo Asiako lurraldeak kolonizatze-rakoan jatorrizko herrien kulturak, lurraldeak edo sistema politikoak alde batera utzita, bestelako mugak ezarri zituzten. Zatiketa artifizial horiek interes europarrak islatu zituzten baina ez zituzten lurralde horietako bereizgarri edo logika komunitarioak aintzat hartu. Banaketa hau bereziki deigarria da Afrikan, non herrialde askoren forma karratua da.



5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA. (4. ERAUZKETA-INDUSTRIA ETA LURRAREN MERKANTILIZAZIOA.)


▪ Zertaz ari gara (petrolio) erauzketaz ari garenean?

Erauzketa-jarduerak meatzaritza, arrantza industrialak, deforestazioa edo petrolioaren ustiapenarekin zerikusia duten jarduerak dira. Praktika hauek baliabide naturalak ingurumenik ateratzean datza, hauekin merkantilizatu eta enpresa, elite zein herrialde boteretsuak aberastu, tokian tokiko komunitateak pobretu eta ingurumena kaltetzen duten bitartean.

Petrolio-erauzketak teknologia eta tresna espezializatuen bitartez, petrolioak ustiatu eta aprobetxatzean datza. Prozesu honek lur-azpia zulatzen du ondoren, lur-azpitik ateratako petrolio gordina erauzketa-putzuetan jaso, prozesatu eta hau merkaturatzeko.

Kapitalismo globalak bultzatutako praktika hauek ondare kolonialaren jarraipena dira eta, Latinoamerikako baliabideak arpilatzeaz gain, ingurumen-eskubideak zein jatorrizko herrien-eskubideak urratzen ditu euren lurralde eta bizimoduak suntsitzen baititu. Erauzketa-praktikek Hego globaleko herrialdeak pobretzen dituen bitartean, Ipar Globaleko eliteak aberasten ditu.

► Erauzketak zer diren azaldueta gai honen inguruan eztabaidatu.



5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA. (4. ERAUZKETA-INDUSTRIA ETA LURRAREN MERKANTILIZAZIOA.)

• Zer erauzi du Europak Latinoamerikatik?


- *Marrazki bakoitzaren alboan lehengaien izenak idatzi. Saia zaitez lehengai bakoitza Latinoamerikako aro, lurralde, arpilatzaile edo gatazka ezberdinekin lotzen.*

Urrea eta zilarra. Latinoamerikan urre eta zilar erauzketa batez ere XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan zehar eman zen, kolonia garaian eta espainiar zein portugaldar kolonoen iritsierarekin hasi zen. Zilar eta urre meategi nagusiak Boliviako Potosi (zilar meategia) eta Brasilgo Minas Gerais (urre meategia) izan ziren. Erauzketa eta espolioazio honen atzean, besteak beste, Hernán Cortés edo Francisco Pizarro kolonoak daude. Antza, Potosiko meategitik ateratako zilar guztia batu ezker, Andeatatik Espainiara zilarrezko zubi bat eraikitzeko adina metal egongo zela esaten da. Bestalde, espainiar atsoitiz bilduman jasota daude espainiar ondare kolonial eta estraktibistaren arrastoak. Esaterako, "vale un Potosí/Perú" esapideetan.

Nekazaritza produktuak: Azukrea, tabakoa, kakaoa edo kafea. Latinoamerikan azukrea, tabakoa, kakaoa edo kafea bezalako nekazaritza produktuak XVI. mendetik aurrera, eta landaketa sistema kolonialean oinarrituta, hasi ziren ustiatzen. Hala ere, praktika honek gaur egunera arte dirau. Azukrea batez ere Karibe eta Brasiletik ustiatzen zen, afrikar esklaboen eskulana-arekin. Tabakoa Kuba, Venezuela eta Brasildik erauzten zuten eta honetarako ere esklabo lana baliatzen zuten. Kakaoa Venezuelen, Mexikon eta Ekuadorren nabarmendu zen. Venezuelen nabarmendu zen erauzketa enpresetako bat *Caracaseko Real Compañía Guipuzcoana* izan zen. Adibidez, Donostiako Santa Maria basilika, hein batean enpresa honen finantziazioarekin eraiki zen.

Kautxua. Kautxuaren erauzketa bereziki XIX. eta XX. mendeetan eman zen, nahiz eta gaur ere ematen den. Ekoizpen gune nagusiak Amazonas ibaiaren arroko herrialdeak (Brasil, Peru, Bolivia, Kolonbia eta Ekuador) izan ziren. Kautxua kotxe edo txirrinden gurpilak egiteko edo kable, isolatzaile, uhal, mahuka edo itsasgarriak bezalako produktu industrialak fabrikatzeko erabiltzen da. Kautxu erauzketak gizarte- eta ingurumen-arrasto sakonak utzi ditu oihanean indigenen eskulana esplotatu eta baso-eremu zabalak soildu zirelako. *Goodyear* enpresa estatubatuarra da erauzketa prozesu honen atzean egon denetako bat. Gaur egun orokorrean, kautxu naturalaren orde, kautxu sintetikoa erabiltzen da.

Petrolio. Petrolio erauzketa Latinoamerikan XIX. mendearen amaieran hasi zen eta gaur egunera arte dirau. Mexiko aitzindaria izan zen, eta gero Venezuela eta Argentinara ere hedatu zen. Petrolio hiri eta etxeak argiztatzeko erabiltzen zen hasiera batean. Geroago, kotxe eta gerra-makinen gorakadekin, petrolioaren erabilerak ugartu eta kontsumoak ere gora egin zuen. *Shell* enpresa estatubatuarra izan zen urteetan industria menperatu zuena, baina gero, toki askotan petrolio nazionalizatu eta estatu-enpresak sortu ziren, esaterako, Venezuelen. Ondorioz, interes geopolitikoak ugaltu eta herrialde askoren geroa Ipar Globaleko eliteen interesen menpe daude.



Litio. Litio erauzketa XX. mende amaieran hasi zen arren, gaur egun geroz eta indar handiagoa hartzen ari da batera eta produktu teknologiko ugari sortzeko erabiltzen delako. Litioaren Triangelua deritzon eskualdean, hau da, Txile, Argentina eta Boliviako basamortu eta goi-lautadetan, munduko litio errezerben % 58 inguru biltzen da. Bateriak direnez trantsizio energetikoaren gakoetako bat, elektrifikazioarako joera handitzen ari den heinean, litioa bezalako mineralen eskaera ere gora egin du.

5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA. (4. ERAUZKETA-INDUSTRIA ETA LURRAREN MERKANTILIZAZIOA.)

▪ Zer dakar estraktibismoak Latinoamerikara?


- Ekosistemen suntsiketa eta ingurumenaren degradazioa.
- Mendekotasun ekonomikoa eta lan-dibertsifikazio eza.
- Arrakala sozioekonomikoa eta aberastasunaren metaketa.
- Indarkeria politikoa eta errepresio soziala.
- Lurralde- eta kultura-subiranotasunen urraketa.
- Zor ekologiko eta klimatikoa.
- Migrazio mugimenduen gorakada besteak beste, arrazoi klimatiko edo sozioekonomikoengatik.

▷ *Europatik Latinoamerikara doan barkuak daramana idatzi ala marrazki bidez adierazi. Latinoamerikara doan barkuaren barruan erauzketen ondorio eta kalteak, praktika hauekin sustatzen diren balio motak edo urratzen diren giza eskubideak islatu.*

GALDERA OSAGARRIA

Erauzketa praktikak Afrika eta Asiako herrialdeetan ere bidegabe hedatuta daude, zer dakigu kontinente hauetako herrialdeen erauzketen inguruan?

▷ Gai honen inguruan eztabaidatu.



5. Proiektuaren garapena: KOKAPENA. (5. EKOZIDIOA, BIZITZA AKABATZEN DUTEN LOGIKAK.)

▪ Entzun al duzu inoiz ekozidio terminoa? Zer esan nahi du?

EKO: "Eco-" aurrizkia grezierako (oikos) hitzetik dator eta etxearen ideia adierazteko erabiltzen da.

ZIDIOA: "-zide" atzizkia latineko (caedere) hitzetik dator zeinak behera bota edo suntsitu adierazi nahi du.


Ekozidioa gizakiaren jarduerak eragindako ingurumenaren suntsiketa larri eta hedatua da. Ekosistemen aurkako kalte masiboak dira, batez ere garapen ekonomikoaren mesedetan egiten direnak. Hala nola, ibaien kutsadura, deforestazioa edo petrolio-isurketak. Ekintza hauek natura kaltetzeaz gain, gizakion bizitza bai eta etorkizuneko belaunaldien etorkizuna arriskuan jartzen ditu ere. Naturak gugan eragina du eta guk eragina dugu naturan; horrenbestez, naturak jasandako edozein eragin negatibok gizartean ere ondorioa izango du.

▷ *Idatzi hitz bakoitzari dagokien esanahia eta sakondu terminoaren esanahian.*

▪ Nolakoa uste duzu dela gure gizartearen ikuspegia, antropozentrista ala biozentrista? Zergatik?

Agerikoa da orokorrean egungo gizakiak ingurune naturaletik aldentuta bizi garela, are gehiago, gizakiok naturaren eta baliabide naturalen jabe garela uste dugu. Hala ere, natura ez dagokio gizarteari, ez eta gizakioi, gu naturalen parte gara, eta gu gara naturaren menpe gaudenak. Ondorioz, Amazonia edo bestelako inguruneak ezin ditugu ustiatzeko baliabide gisa ulertu, eskubidedun subjektu gisa baizik. Adibidez, Ekuador eta Boliviak euren konstituzioak aldatu dituzte, naturaren berezko eskubideak aitortzeko.

Bestalde, jatorrizko herri askok euren buruak naturaren zaindaritzat dituzte. Eta euren kosmobisioa naturarekin harreman orekatua eraikitzean datza. Beraz, Ikuspegi hau ez dator bat baliabide naturalak merkantilizatzearen mundu-ikuskerarekin.



5. Proiektuaren garapena: ZONA WAO DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA

Zona Wao dokumentalaren proiektzioa.

- ▷ Dokumentala ikusi bitartean petrolio erauzketen eraginei (natura, osasun, komunitate eta genero) erreparatuko diegu. Horretako ikasleek euren gidako 2. orrialdean oharrak jasoko dituzte. Dokumentala ikusi ostean galdera bakoitzean sakonduko dugu.

Petrolio erauzketen ondorioak

- ▷ Dokumentala ikusi ostean talde handia 4-5 pertsonako azpitaldeetan antolatuko dugu, dokumentalen inguruko sentsazioak partekatzeko. Eztabaidatzeko tartetxo bat hartuko da.
 - Zer iruditu zaizu?
 - Ze gorputzaldirekin zaude?
 - Zerk deitu dizu arreta?
- ▷ Azpi-taldeko kideekin petrolio erauzketen inguruan jasotako oharrak kontrastatu eta bakoitzak bere apunteak osatuko ditu. Talde bakoitzak bozeramaile bat edo bi izendatuko ditu solasaldiaren ostean ondorioen sintesi edo aurkikuntza nagusiak gela osoari azaltzeko.
- ▷ Lanketa hau egin bitartean jarraian adieraziko diren ideia edo datu osagarriekin aberastu daitezke ikasleen ekarpenak. Ikasleek adierazitako ideiak osatu eta sakontzeko, hurrengo lerroetan petrolio erauzketen eraginak xeheago azalduko dira.



5. Proiektuaren garapena: PETROLIO ERAUZKETEN ONDORIOAK

ERAGINAK NATURAN. Zer kutsadura edo hondamendi natural mota identifikatu dituzu?

Lurrari egindako kalteak: Petrolio-jarduerak, bideak eraikitzeak, plataformek, petrolio-hodiek, hondakin toxikoen kudeaketa desegokiak, isurketek eta petrolio-guneetako urbanizazio azkarrak deforestazioa, lurrak mugitzea, malden moldaketa, higadura eta lurzorvak emankortasuna eta produktibitatea galtzea eragin dute.

Azaleko eta lurrazpiko ur-iturriei egindako kalteak: Lerro sismikoak trazatzeak, plataformak eraikitzeak, euri azidoa eragiten duen hondar-gasa errausteak, arduragabe prozesatzeak eta putzuak bertan behera uzteak ur-iturriak kutsatzen dituzte, hala nola ibaiak, zingirak, lurrazpiko urak eta urmaelak, giza- eta animalia-kontsumorako urak, alegia.

Aire-kutsadura: Ibilgailu astunen zirkulazioak eta gasa edo gordina putzuetan erretzeak airea kutsatzen dute, hautsa, zarata eta gas toxikoak igortzen dituztelako. Isurketa horiek berotegi-efektua eragiten dute eta euri-uraren kalitatean eragina dute.

Faunaren gaineko inpaktuak: Errepideak eraikitzeak eta sorgailuak erabiltzeak zarata eragiten dute, animaliak aldentzen dituzte eta haien kopurua txikitzen dute. Bertan behera utzitako azpiegiturek mikrougaztunak akabatzen dituzte eta gasa erretzeak intsektu eta hegaztietan eragina du. Horrek, aldi berean, elikadura-katean eragina du.

Floraren gaineko inpaktuak: Heliportuak eraikitzeak, indusketek, gasa erretzearen ondoriozko tenperatura altuek eta gas toxikoek basoak, larreak eta fruitu-zuhaitzak nabarmen suntsitzea eragiten dute.

PETROLIO ERAUZKETEN ONDORIOAK

ERAGINAK NATURAN Zer kutsadura edo hondamendi natural mota identifikatu dituzu?	ERAGINAK OSASUNEAN Zer osasun-arazo agertzen dira eta nola eragiten dute?
OSASUNO-ERAGINAK Zergatik eragiten du gasa osasunari galarako botaketak?	ERAGINAK KONTAMINATZEAN Zertan aldatu da ekosistemak kontaminatzearen botaketak?

Ondorengo datuak Medicusmundi erakundeak Simon Bolivar Andeetako Unibertsitatearekin dokumentalaren testuinguru berean gauzatutako Osasunaren Petrolizazioa: Ekuadorreko Amazoniako Ekogenozidioaren Sitematizazioa (2024) ikerketatik jaso dira.

5. Proiektuaren garapena: PETROLIO ERAUZKETEN ONDORIOAK

ERAGINAK OSASUNEAN. Zer osasun-arazo aipatzen dira eta nori eragiten diote?

Minbizia. Amazonian minbiziaren pandemia hilgarria izugarri hedatu da eta petrolizazio prozesuek eragindako kutsadura-rekin lotutako gaixotasunen artean lehenengoa da. Gaixotasun honek, batez ere, kutsatutako ura kontsumitzen dutenei eta petrolio-enpresetatik hurbil bizi direnei eragiten die. Minbiziaren prebalentzia handiagoa da emakumeengan gizonengan baino eta minbizia motei dagokienez, minbiziak ugalketa organo femeninoetan nabarmentzen dira, hala nola bularra, umetoki-lepo eta -gorputza, bagina eta obarioetan. Gizonezkoen kasuan, ugalketa-organoean minbizia-kasu gutxiago dituzte, gehiago urdailean edo azalean.

Haurdunaldiko arazoak. Petrolio-fabrikekiko esposizioak eta horien kutsadurak haurren heriotza-tasa igotzea eragiten du eta malformazioekin, leuzemiarekin, minbiziarekin eta desnutrizioarekin lotura estua du. Gainera, kutsadurakiko esposizioak haurdunaldian zailtasunak eragiten ditu, hala nola, emozio-arazoak, abortuak eta sortzetiko malformazioak. Kutsaduratik hurbil egoteak eta kutsatutako ura kontsumitzeak material genetikoan aldaketak sortzen dituzte eta sortzetiko malformazioak edukitzeko arriskua handitzen du, horrenbestez, fetuek bizitzarekin bateraezinak diren mutazioak eta malformazioak dituztenez, abortu gehiago daude.


Malnutrizioa. Ur edangarria ez edukitzea, ohiko ekoizpen-metodoak galtzea (ehiza eta nekazaritza) kutsadura eta natura-baliabideen murrizketak biztanleriaren osasuna baldintzatzen dute, batez ere haurrena. Arazo ohikoenetarik bat malnutrizioa da. Halaber, haurren malnutrizioa oso kezkagarria da euren

garapen fisiko eta mentalean eragiten duelako. Desnutrizioak zorua kutsadurarekin lotuta dago, izan ere, elikatzeko naturarekiko mendekotasuna duten komunitateek haien proteina-iturri nagusia ehiza eta arrantzaren bitartez harrapatzen dute, eta fauna eta florarik gabe euren elikadura zapuzten da.

Desgaitasunak. Petrolio-ustiapen guneetan bizi direnen artean desgaitasunen prebalentzia handia dago. Arrazoi nagusiak petrolioak kutsatutako ura edatea eta denbora luzez esposizioa izatea dira. Desgaitasun nagusiak adimenezkoak, fisikoak, ikusmenekoak eta entzumekoak dira.

Digestio-sistemako arazoa. Petrolio-ustiapenean erabilitako substantzia kimikoek eta ingurumen-hondamendietatik eragindako konposatuek digestio-sisteman arazoak sortzen dituzte, hala nola, goragaleak, okak, gastritisa, heste-infekzioak, beherakoak eta urdaileko minak. Arazoaren jatorria kutsatutako ura eta elikagaiak (metal astunekin kutsatutako arrainak eta begetalak) kontsumitzea da.

Arnas-sistemako arazoak. Petrolio-ustiapen guneetan arnas-patologiaren prebalentzia handia dago, gas eta konposatu kimiko toxikoak inhalatzearen ondorioz. Gordina erazteko prozesuan, oso toxikoak diren gas eta konposatu kimikoak (adibidez, CO2a, metanoa, etanoa, propanoa eta butanoa) kanporatzen dira eta arnas-arazo larriak sortzen dituzte. Hala nola faringitisa, laringitisa, bronkitisa eta pneumonia.



Azaleko arazoak. Ibai eta zingiretako urak oso korrosiboak eta narritagarriak diren elementu toxikoekin kutsatuta daude eta horiek dermatologia-gaixotasunak eragiten dituzte. Nahasmendu kutaneoaren artean onddoak, buruan ezakabia eta pitiriasia, atletaren oina edo dermatitisa gailentzen dira. Ur kutsatuarekiko esposizioa, hori kontsumitzea edo norbera garbitzeko erabiltzea dira dermatologia-arazoaren arrazoi nagusiak. Gainera, indigenak bereziki zaurgarriak dira, ibai kutsatuetatik oinutsik ibiltzen direlako. Era berean, emakumeek gaixotasun kutaneoak gehiago pairatzen dituzte, urarekin lotutako lanak beraiek egiten dituztelako, bereziki ibaietan arropa garbitzea.

Sexu-transmisiozko infekzioak (STI). Petrolio-enpresak eta kolonoak sartzean, Amazoniako biztanleriaren artean sexu-transmisiozko infekzioek (STI) gora egin zuten, hala nola, eta HIES-ak eta giza papilomaren birusak.

Ondorengo datuak Medicusmundi erakundeak Simon Bolivar Andeetako Unibertsitatearekin dokumentalaren testuinguru berean gauzatutako Osasunaren Petrolizazioa: Ekuadorreko Amazoniako Ekogenezidioaren Sitematizazioa (2024) ikerketatik jaso dira.

5. Proiektuaren garapena: PETROLIO ERAUZKETEN ONDORIOAK

ERAGINAK OSASUNEAN. Zer osasun-arazo aipatzen dira eta nori eragiten diote?

“Dimentsio psikoafektiboa eta psikosoziala.”


Nortasun kulturala galtzea eta autoestimu baxua. Mendebaldeko kulturarekin etengabeko harremana izateak biztanleria indigenari berezko nortasun kulturala nabarmen galtzea eragiten dio. Balio eta ohitura berriak sartzean, ohitura tradizionak baztertzen baitira eta hizkuntzaren, erritoen, jaien eta musika tradizionalen beherakada gertatzen da, bereziki gazteengan.

Kolonizazio prozesu bortitzek ez dizkie lurrak bakarrik kendu, baita bizimodua ere. Ondorioz, Waoraniak arrotz sentitzen dira beraien baitan eta inguruan duten munduan, etengabeko linboan dauden, inbasoreak imitatu eta moldatu nahian, baina arrakastarik gabe. Egoera horrek kulturarekiko deserrotzea eragin du, atzerrikoari pisu eta balio handiagoa emanez. Horrek kideen artean autoestimu baxuko arazoak eragin ditu.

Waorani biztanleria jada ez dago bere nortasunaz arro eta ez da gizarte berriaren parean sentitzen. Gainera, nortasun kultural propioa baieztatzeko zailtasunak izatera eta haien irudi fisikoarekiko apatia sentitzera eramaten ditu. Gazteen kasuan, ez dute komunitateen parte izan nahi. Horrek guztiak muturreko erantzunak eragiten ditu, hala nola suizidioa eta neurririk gabe alkohola kontsumitzea.

Kalte psikosoziala. Petrolio-enpresen, militarren eta kolonoen presentziak, kutsaduraren, gaixotasunen eta heriotzaren presentziarekin batera, komunitate indigenengan beldurra, frustrazioa, haserrea, urduritasuna, larritasuna, ziurgabetasuna, sumina, abandonu-sentimendua, bakartasuna eta errua azaleratzea eragiten dute. Eta sentimendu kudeaketa aproposerako tresnen laguntzarik gabe, emozio-, portaera- eta buru-nahasmenduak gero eta ohikoagoak dira.

Depresioa nortasun pertsonala galtzearekin eta etorkizun gabeziarekin ere lotuta dago, Waorani komunitateetan gertatzen den bezala. Gainera, familiaren edo bikotekidearen abandonuak, besteak beste, petrolio plataformetara lanera doazelako, ere kontuan izan behar dira. Beste alde batetik, militarren okupazioak, errepresioak eta protestaren zein erresistentziaren kriminalizazioak kalte psikosozialak ere eragiten ditu.



Ondorengo datuak Medicusmundi erakundeak Simon Bolivar Andeetako Unibertsitatearekin dokumentalaren testuinguru berean gauzatutako Osasunaren Petrolizazioa: Ekuadorreko Amazoniako Ekogenozidioaren Sitematizazioa (2024) ikerketatik jaso dira.

5. Proiektuaren garapena: PETROLIO ERAUZKETEN ONDORIOAK

GENERO ERAGINAK. Zergatik eragiten die gehiago emakumeei gainerako biztanleei baino?

Zaintzaren etika. Proiektu estraktibistek bereziki emakumeen ongizatean eragiten dute. Adibidez, emakumeek zaintza-lanak direla eta uraren kutsadurarekiko esposizio zuzena dute. Horrek zenbait gaixotasun izateko arriskua handitu egiten du, hala nola, minbizia edo arazoak haurdunaldian Gainera, ur edangarriko zerbitzuen gabeziak baliabide hori aurkitzeko distantzia handiak ibiltzera behartzen ditu. Horri guztiari, gainera, enpresa estraktibisten eskariei erantzuna ematen lanpetuta daudelako, gizonik ez dagoela gehitu behar zaio.


Beste alde batetik, petrolio-enpresek inposatutako jarrera matxistek, hala nola langileak kontratatzean, akordioak negoziatzean eta bitartekoak bilatzean, gizonen lehentasuna ematen diete. Lanaren sexu-banaketa erreproduzitzeak emakumeek egiten dituzten lansaririk gabeko lanak ikusgaitz bihurtzea eragiten du. Hala, diru-sarrerara apalak eskuratzeko haien burua enplegu informalak bilatzera behartuta ikusten dute. Lan-desberdintasun horrek gizona egoera pribilegiatuan kokatzen du. Horrek, aldi berean, genero-indarkeria eta emakumeen gizonen lansariekiko mendekotasun ekonomikoa sustatzen ditu.

Sexu-indarkeria. Sexu-jazarpena eta bortxaketak sexu-indarkeria mota ohikoenak dira petrolio-guneetan, bai eta neskatoen salerosketa ere. Sexu-indarkeria ez da salatzen, ezta familia-inguruan komunikatzen, beldurra edo lotsa dutelako, aukera faltagatik, mehatxuengatik edo estigmaren eta salaketaren ondorioen beldur direlako.

Emakumeen gorputza. Historian zehar, emakumeen gorputza herrien bakea lortzeko tresna gisa erabili da. Estatuak emakumeen gorputzak indarkeriaren foku nagusi eta diziplina-politikak bultzatzeko objektu bihurtu ditu. Hori da emakumeen Waoraniaren kasua. Emakumearen gorputza instrumentalizatzeko modu bat petrolio-enpresek emakumeak eta haien alabak jazartzen dituztenean azaleratzen da, komunitateko gazteek lanpostu bat eskuratu ahal izatea haien onarpenaren edo konplazentziaren mende baitago. Horrek guztiak ama senargabeak egotea eragin du, aitaren laguntzarik gabe, kontratatzaileen eta boteredun pertsonen amorante bihurtuz.

Lanean eta hezkuntzan sarbide desberdina. Petrolio-enpresetan enpleguen banaketa desorekatuta dago. Ordainpeko enpleguak nabarmen maskulinizatuta daude, eta emakumeek enplegua lortzeko zailtasunak dituztenez eta transakzio-ondasunen gabezia dutenez, mendekotasun ekonomikoa dute

Emakumeen lan-merkaturako sarbidea mugatzen duten arrazoen artean, gazteen haurdunaldiak eta bikotekidea topatu, ezkondu edo seme-alabak izan ostean etxean geratzeko gizarte-derrigortasuna daude.



Ondorengo datuak Medicusmundi erakundeak Simon Bolivar Andeetako Unibertsitatearekin dokumentalaren testuinguru berean gauzatutako Osasunaren Petrolizazioa: Ekuadorreko Amazoniako Ekogenezidioaren Sitematizazioa (2024) ikerketatik jaso dira.

5. Proiektuaren garapena: PETROLIO ERAUZKETEN ONDORIOAK


ERAGINAK KOMUNITATEAN. Zertan aldatu da Waorani komunitatearen bizimodua?

Ekoizpen-moduak: Aldaketa nabarmena ikusten da komunitate indigenek naturarekin duten elkarreraginean, errespetuzko harreman jasangarritik komertzialera igaro baitute. Aldaketa hori lurraldea kentzearen eta lurraldea toki sakratutzat jotzea bezalako mundu-ikuskerak galtzearen ondorio gisa ulertzen da. Gainera, naturan eragindako kalteek komunitate indigenen ekoizpen modu tradizionalak narriatzea eragin dute nekazaritza, ehiza eta arrantza kasu.

- **Nekazaritza.** Bizirauteko eta ekonomiarako ezinbesteko jarduera da, batez ere familia indigenentzat. Petrolio enpresak heltzeak eta kutsadurak laborantzen emankortasunean eta kalitatean eragiten dute eta, ondorioz, agrokimiko gehiegi eta praktika ez-jasangarriak erabiltzen dituzte, luraren emankortasunean kalteak eraginez.
- **Ehiza eta Arrantza.** Hasiera batean animaliak autokontsumo-rako bideratuta zeuden, baina orain merkataritza-produktu bihurtu dira. Gainera, uraren kutsadurak eta petrolio-fabrikek sortutako zaratak kalte zuzenasortzen dituzte ugaztun- eta arrainen-populazioetan.

Kontsumo erak. Kontsumoari dagokionez, oinarritzko zerbitzu ugari ez daude eskuragarri. Bestalde, ekialdeko produktuen kontsumo gorakada nabarmena da ere. Hala, elikagai berriak sartzean haien dietak aldatu egin dira. Ekialdeko produktuen artean, alkohola da gehien kontsumitzen denetarikoa. Ondorioz, petrolio-guneen inguruetan ohikoa da tabernak eta prostituzio-etxeak egotea.

- **Oinarritzko zerbitzuak.** Gune horien ezaugarria ur edangarria, osasuna, estolderia eta telefonia eskuragarri ez izatea da. Estatuak ez dituenek eskubide eta zerbitzuak bermatzen, enpresek hartzen dute Estatuaren papera, eta biztanleriaren beharrak neurri batean soilik asetzen dituzte. Neurri batean, horrek erraztu egiten dizkio biztanleriari lehen eskura ez zituen oinarritzko zerbitzuak, baina petrolio-enpresekiko mendekotasun handiagoa sortzen du.
- **Mediku arreta.** Estatuko presentzia oso urria da eta horregatik, esaterako, animalientzako sendagaiak erabiltzea bezalako erabakiak halabeharrez hartu behar izaten dituzte. Bestalde, presentzia bereziki handia duten gaixotasun kronikoentzako, minbiziarentzako, adibidez, mediku-arreta espezializatua ez egoteak heriotza-tasak gora egitea eragiten baitu.
- **Hezkuntza.** desplazatutako komunitateek ez dute hezkuntza-instituziorik hurbil, eta hurbilen daudenetan ere irakasle falta, metodologia ez aproposak eta azpiegitura eskasak daude. Gabezia horiek eskola-uzte eta analfabetismo-tasa altuekin zerikusia du.



Ondorengo datuak Medicusmundi erakundeak Simon Bolivar Andeetako Unibertsitatearekin dokumentalaren testuinguru berean gauzatutako Osasunaren Petrolizazioa: Ekuadorreko Amazoniako Ekogenezidioaren Sitematizazioa (2024) ikerketatik jaso dira.

5. Proiektuaren garapena: MUNDU ONDENAREN PARADOXA

▷ Eduardo Gleanoren aipu hau oin hartuta “Pobreak gara aberatsa delako zapaltzen dugun lurra” sakrifizio guneak zer diren eta ugaritasunaren paradoxa zertan datzan aztertuko dugu. Lanketa hau egiteko jo ikasleen gidako 3. orrialdera.

GALDERA OSAGARRIA

Zer esan nahi du aipuak? Badakizu nor den aipuaren autorea?


Aipuaren autorea Eduardo Galeano idazle uruguaiarra da eta ideia honen inguruan bere obra ospetsuenetako bat idatzi zuen, Latinoamerikaren zain urratuak. Esaldiak baliabide naturalen ustiapenari egiten die kritika eta kolonialismoak eta neokolonialismoak sortutako bidegabekeria ekonomikoaren eta desberdintasunaren salaketa da. Galeanoren hitzetan, Latinoamerikako lurzoru eta baliabide naturalen aberastasunaren ondorioz, Ipar Globaleko herrialde eta enpresak aberasten diren bitartean, latinoamerikarrak pobretzen dira oparotasun horretatik at geratzen baitira.

▷ Lehenik eta behin sakrifizio guneak eta ugaritasunaren paradoxa zer diren azalduko da informazioa boz goran irakurri eta elkarrekin ñabardurak arakatuta.

Sakrifizio guneak. Sakrifizio gune deritzegun lurraldeetan baliabide naturalen ustiapenen ondorioz, giza eta natura eskubideen urraketa larriak ematen dira, eta, era berean, egin den inbertsio ekonomikoa oso urria izan da.

Baliabideen madarikazioa edo **ugaritasunaren paradoxa** kontzeptuak erabiltzen dira lurralde hauei erreferentzia egiteko. Izan ere, mineral eta erregaietan aberatsak diren eremuak gutxiago garatzen dira baliabide hauetan pobreak diren lurraldeekin alderatuta. Ondorioz, baliabideetan aberatsak diren munduko eremuak izan ohi dira askotan pobreenak.

Amazonian hamarkada batzuetatik hona, multinazionalak eta estatuko enpresek urtero urte beltzez beteriko milaka upel ateratzen dituzte oihaneko beste hainbat baliabideekin batera. Gaur egun, Amazoniako azaleraren % 60 baino gehiago petrolio-erauzketen menpe dago, eta erauzketek, nekazaritza-ustiapen intentsiboarekin batera, beste paradoxa bat eragin dute, munduko birikek xurgatzen duena baino CO2 gehiago isurtzea, hain zuzen.




▷ Jarraian, ugaritasunaren paradoxa fenomenoan oinarrituta, paradoxak zer diren landuko da.

Paradoxa bat hasiera batean zentzurik ez duen edo kontraesankorra dirudien zerbait den arren, sakonago arakatuta atzean egia ezkutatzen duen gertaera bati egiten dio erreferentzia. Paradoxek agerian uzten dute logikoa edo naturala dirudienak batzuetan ustekabeko edo bidegabeko ondorioak dituela. Munduko arazoak sakonago pentsatzen laguntzen digute.

5. Proiektuaren garapena: MUNDO ONDENAREN PARADOXA

- ▷ Paradoxak zer diren ulertu ostean, ikasleak 4-5 kideko taldeetan antolatu eta talde bakoitzari filmeko fotograma bana banatuko zajo:
- ▷ Fotograma hauetan oinarrituta, talde bakoitzak paradoxa bana eraiki beharko du.



- ▷ Irudiak aztertu ostean, elkarren artean antagonikoak, kontraesankorrak edo deigarriak diren bi elementu, objektu edo ideia aukeratu beharko dituzte eta bakoitza karratutxo batean kokatu.
- ▷ Ondoren, ideia bakoitzak dituen ezaugarri propioak aurkitu eta adierazi beharko dituzte.
- ▷ Azkenik, irudian oinarrituta eta identifikatutako bi elementuak aintzat hartuta, talde bakoitzak paradoxa bana sortuko ostean talde handiari azaltzeko.

5. Proiektuaren garapena: ONDORIOAK

GORDINAREN IRABAZI BIDEGABEAK

► Informazioa elkarrekin landu eta honen inguruan eztabaidatu proposatzen den galderari erantzunda.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Enpresek lortutako irabaziak.

Enpresa transnazioanalek ez daude kontrol-mekanismoen menpe edo hauen gaineko kontrola oso arina da. Enpresa hauen nazio-gaioak izaerak, aldakortasun juridikoak eta darabilten egitura konplexuak, euren negozioak aurrera eramateko komenigarrienak zaizkien legediak aplikatzea ahalbidetzen die. Hala, Iparaldeko herrialde ugari Hego Globaleko herrialdeetara jotzen dute zergen ordainketari eta kontu-emateari uko egiteko eta gardentasunari edo gizarte, lan eta ingurumen arautegiei dagokienean legedia euren aldekoa delako.


Zonalde honetan luze egon den enpresetako bat Repsol multinazional espainiarra izan da. Repsolek 1999 eta 2022 urteen artean Ekuadorko Amazoniako Orellana probintzian Yasuní Parke Nazionalako 16 eta 67 petrolio-blokeak ustiatu zituen. 23 urte hauetan Repsolek 317 milioi upel atera zituen, eta, guztira, 21,665.62 milioi euro fakturatu zituen.

Yasuní Parke Nazionalako 16. eta 67. blokeetan lortutako irabazien % 79 enpresen (Repsol eta findegiko garraio eta banaketako beste enpresen) zein Espainiako Gobernuaren esku geratu dira. Ekuadorko Gobernuak, aldiz, gainerako % 21 jaso du.

▪ Zer jaso dute trukean inguru horietan bizi diren herri eta komunitateak?

Ezinezkoa da hidrokarburiferoaren jabe diren Waorani komunitateko kideek jasotako baliabideen zenbatekoa kuantifikatzea, baina agerikoa da euren irabaziak ez direla inondik inora bidezkoak. Izan ere, Ekuadorko zonalde hauetan herrialdeko beste lurralde batzuetakoak baino nabarmen txikiagoak dira oinarritzko zerbitzuak, eta gabezia ugari daude osasun-zerbitzu, hezkuntza, azpiegitura eta antolaketa politikoari dagokionean. Gainera, giza-garapenaren indizeak askoz txikiagoak dira, eta muturreko pobrezia-eraren intzidentzia estatuko batez bestekoa baino handiagoa da.

Guzti honi genero-indarkeria, alkoholismoa, mendekotasun ekonomikoa, herri zein kultura indigenen desagertzea eta familia- eta komunitate-ehunaren ahultzea erantsi behar zaio. Azken batean, Yasuní Parke Nazionalako Waorani komunitateko kideak ez dira beren lurraldearen hidrokarburo-baliabideen jabetzat hartzen.



▪ Zertarako erabiltzen ditugu petrolio eta hidrokarburoak?

Euskadin pertsona bakoitzak 5 petrolio litro inguru kontsumitzen ditu egunean. Bost litro hauek garraiorako erabiltzen ditugun erregai likidoak (gasolioa, gasolina, fuel-olioa) dira baina ura berotzeko, elektrizitatea jasotzeko, berogailuak pizteko edota egunerokotasuneko produktu ugari ekoizteko baliatzen ditugu ere. Hala nola, ontziak, xaboiak, betaurrekoak edo osasun-produktuak egiteko petrolio baliatzen da.

EAE-n kontsumitzen dugun energiaren % 45,8 petrolio edo gasetik dator baina hemen kantitate guzti horren % 10 baino ez dugu ekoizten. Gainerakoa, kasu gehienetan, milaka kilometro-tara dauden herrialdeetatik ustiatzen dugu. Eredu honek erauzketetan oinarritutako modelo ekonomikoari erantzuten dio eta Hego Globaletik lehengaiak ustiatu eta esportatzen dituen sistemaren adierazle da.

5. Proiektuaren garapena: ONDORIOAK

HERRITARRON ERANTZUKIZUNA

Nola banatzen dira zure eguneroko 5 litroak?

Nahiz eta Amazoniako hondamendiaren erantzule nagusiak enpresak diren eta sarraski hauek euskal gizartetik urrun geratu, ezin dugu ahaztu EAEko biztanle bakoitzak egunero 5 litro petrolio kontsumitzen dituela. Kontuan izan behar dugu beraz, gure kontsumo ereduak Amazonia suntsitzen duela, hortaz, herritarrok ere badugu hondamendi honen aurrean gure erantzukizun eta ardura. Gure esku dago, gure ohiturak aldatu eta hidrokarburoen kontsumoa gutxitzea.


➤ *Hidrokarburoen kontsumoa murrizteko ikasleek zein estrategia eta ideia ezagutzen dituzten komentatu. Hauetako adibide batzuk fitxan jaso.*

▪ Nola gutxitu dezakegu egunerokotasunean gure hidrokarburo kontsumoa?

- Garraio jasagarria erabilia. Distantziak laburrak direnean oinez edo txirrindaz joan, ahal den guztietan garraio publikoa erabili, autoa partekatzeak ohitua hartu edo hegazkinen erabilera murriztu.
- Ibilgailu eraginkorrak erabilia. Modelo hibrido edo elektrikoak aukeratu eta ibilgailuen mantenu egokia egin.
- Etxeko energia kontsumoa kontrolatuta. Argiak eta gailu elektronikoak itzali hauek erabiltzen ari ez bada. LED bonbillak erabili eta berogailu zein aire girotua tenperatura egokietara doitu.

- Modu eraginkorrean sukaldatuta. Presio-eltzeak zein hondo lodiko zartaginak erabili eta labearen gehiegizko erabilera saihestu.
- Plastikokoak eta erabilera bakarreko ontziak murriztu eta produktu berrerabilgarri edo ontziratu gabekoak erosi.
- Argi naturala aprobetxatuta. Egunean zehar gortina eta pertsiak ireki argi artifizialaren erabilera murrizteko.
- Ura hobeto kontserbatuta. Jario txikiko txorrotak instalatu, ur-jarioak konpondu, bainuak hartzea saihestu eta azkar duxatu.
- Elikadura kontzientea eginda. Okel eta esnekien kontsumoa murriztu eta tokiko zein sasoiko produktuak kontsumitu.
- Zaborra birziklatuta eta hondakin organikoak konpostatuta.
- Ondasun materialen kontsumoa murriztuta. Adibidez, arropa erostea ekidin eta fast fashion-ari uko egin.
- Hidrokarburoen kontsumo murrizketa sustatzen duten informazio- eta sentsibilizazio-kanpainetan aktiboki parte hartuta.

➤ *Hidrokarburoen kontsumoa murrizteko ikasleek zein estrategia eta ideia ezagutzen dituzten komentatu. Hauetako adibide batzuk fitxan jaso]*



▪ Zer egiteko prest nago?

Norberak benetan egiteko prest dagoen aldaketak jasoko ditu.

➤ *Hidrokarburoen kontsumoa murrizteko aukera ugari dauden arren, ikasle bakoitzak benetan zer egiteko prest dagoen pentsatuko du. Hau da zer aldaketa egiteko prest dagoen. Norberak bere konpromiso pertsonala fitxan jasoko du.*

5. Proiektuaren garapena: ONDORIOAK

EAE-KO ERAUZKETA KASUAK.

Zer itxura hartzen du estraktibismoak Euskadin?

Estraktibismoak mundu mailan nagusitzen den logika kapitalista eta neokolonialistari erantzuten dio eta Euskadin ere hainbat kasu ditugu. Euskal Autonomia Erkidegoan, besteak beste, basogintzako eta arrantzako ustiapenean edo ingurumenari eragiten dioten azpiegitura-proiektuetan islatzen da estraktibismoa.

XIX. mendetik XX. mendearen erdialdera arte, Bizkaia meatzaritza gune garrantzitsua izan zen, Somorrostroko haranak paper garrantzitsua izan zuen saio honetan. Burdina ateratzea funtsezkoa izan zen industrializaziorako, baina ingurumen-inpaktu handia eragin zuen, hala nola baso-soiltzea eta paisaiaren narriadura.

Euskal Autonomia Erkidegoan baso-eremu garrantzitsuak dauden arren, baso autoktonoen zati handi bat pinu eta eukalipto sailek ordeztu d, besteak beste, zur-industriarako. Horrek biodibertsitatea murriztu du eta tokiko ekosistemak aldatu ditu.

Arrantza sektore tradizionala da Euskadin, baina gehiegizko ustiapenak arrain-populazioak murriztu ditu eta arrantza-komunitateei eragin die. Arrantza industrialaren ondorioz, hegialburra eta legatza bezalako espezieak gutxitu egin dira.


Autobideak edo abiadura handiko trena (AHT) bezalako proiektuek ingurumenean, lurzorua erabileran eta tokiko komunitateen bizimoduan eragina dute.

Zein da lurraldean gauzatzen diren praktika estraktiboen eta emakumeen gorputzek jasaten dituzten indarkerien arteko harremana?

Erauzketa praktikek izaera patriarkal eta kapitalista dute. Ondorioz, lurra eta emakumeen gorputzak ustiatu eta kontrolatu daitezkeen baliabide gisa ulertzen dituzte. Erauzketa-praktikek logika kapitalistaren onurarako natura menderatu eta kontrolatzen duten bezala, sistema patriarkalak bere interesak asetzeko, historikoki esplotatu, kontrolatu eta diziplinatu ditu emakumeen gorputzak. Bai lurra eta bai emakumeen gorputzak balio patriarkalen zein kapitalisten onura eta sostengurako baliabideak izan dira.

Era berean, erauzketa-praktikek bortxaketa edo sexu-indarkeriaren irudia iradokitzen dute, bi kasuetan, lurra eta emakumeen gorputzak inbasioaren, apropiazioaren eta inposizioaren bitartez bereganatzen direlako.

Bestalde, erauzketa-praktikek lurraldea birpatriarkalizatzen dute. Hau da, alde batetik, logika patriarkalak lurra esplotatu eta suntsitzen du bertako bizi-zikloekin akabatuz. Bestetik, erauzketa industriak lurraldea maskulinizatu eta militarizatzen duenez, besteak beste, genero rolen indartzea eta genero- zein sexu-indarkeriaren gorakada dakar. Funtzionamendu honek lurraldearen zein emakumeen gorputzen gaineko menderatze-logika antzekoa islatzen du.



▷ Aipua, galdera, dokumentaleko genero eraginak eta fitxako marrazkia kontuan hartuta, lurra eta emakumeen gorputzak pairatzen dituzten indarkeriez hausnartu.

6. Itxiera

Saioari amaiera emateko Calle13 taldearen Latinoamerika abestiaren bideoklipa ikusiko dugu Amerikako herrien erresistentzia, borroka, jakintzak, duintasuna eta aberastasuna azpimarratzeko. Ikasle bakoitzak erakargarria edo iradokitzailea iruditu zaion irudi edo esaldi bat aukeratuko du. Ostean, irudi edo esaldi hori saioan jasotako ideia edo ondorio batekin lotuko du taldearekin edo albokoarekin partekatzeko. Hauxe da bideoa ikusteko esteka.



<https://www.youtube.com/watch?v=DkFJE8ZdeG8>

7. Ebaluazioa.

Ebaluazioren helburua ez da ezagutza kalifikatu edo kuantifikatzea, izan ere, ebaluatu nahi dena ikaslek gairekiko izan duten kontzientzia-hartze eta sentsibilizazioa da. Pentsamendu aldaketa hau neurtzeko baliatuko dugun ebaluazio-tresna "Lehen pentsatzen nuen, orain pentsatzen dut" pentsamendu errutina da.

Tresna hau prozesuaren inguruan hausnartu eta euren pentsamenduaren bilakaeran inguruan kontzientzia hartzeko pentsatuta dago. Hau da, hasieran zituzten ideia, pentsamendu edo edukiak, egin duten prozesuren bitartez, nola eta zergatik eraldatu diren aztertu nahi du.

Errutina erabilgarria da ikaskuntza berriak sendotu eta era berean, ulermen, iritzi eta sinesmen berriak zeintzuk izan diren identifikatzeko. Bestalde, pentsamendu errutina honek izaera metakognitiboa du, ikasleei eduki jakin bat landu ondoren ideiak nola eta zertan aldatu diren ohartarazteko aukera ematen dielako. Hau da, jarduera honen bidez, ideiak nola aldatu diren hausnartzen da.

Pentsamendu errutina honi hainbat adierazle gehitu zaizkio Zona Wao dokumentalaren eta bertan jorratzen diren gai eta azpigiaren informazio zehatzagoa jaso ahal izateko eta ikasleriaren pentsamendu bilakaera adibide konketuagoekin ulertzeko asmoarekin. Hauek izango dira neurtuko diren adierazleak.

- Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketak.
- Petrolio-erauzketen ondorioak.
- Jatorrizko herrien (Wao komunitatearen) errealitate, eskubide eta erresistentziak.
- Ingurumenaren eskubideak.
- Egungo ekoizpen eta kontsumo ereduari dagokionean norberaren erantzukizun eta konpromisoa.

Adibide gisa ikasleek honakoa idatzi beharko dute. Lehen zer pentsatzen zuten, demagun, Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketen inguruan eta orain gai berdin honen inguruan zer pentsatzen duten.

"Lehen pentsatzen nuen Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketak modu jasangarrian egiten zirela eta ez ziotela hainbeste eragiten bertako komunitateei."

"Orain pentsatzen dut Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketak oso kaltegarriak direla Waorani komunitatearentzat, naturarentzat eta baita guretzako ere. Izan ere, Amazoniako osasunak guztioi eragiten digu."

Lanketa bukatzerakoan ikasleek osatu beharko duten ebaluazio-txantiloia ikasleen gidako azken orrialdean dago. Txantiloia hementxe atxikita dago.

EBALUZIOA

• **Adina:** 14-17 | 18-22 | 23-30 | 30tik gora

• **Hedabidea - erago:** 1001 | Gai-matatuak | Bantelargia | Gai-matatuak | Unibertsitatea | Beste bat

• **Generoa:** Erakundeak | Gidatzaileak | Gidatzaileak | Ez dago zehazturik

LEHEN PENSATZEN NUEN

• Lehen pentsatzen nuen Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketak...

• Lehen pentsatzen nuen petrolio-erauzketen ondorioak...

• Lehen pentsatzen nuen herrien indigenak...

• Lehen pentsatzen nuen ingurumenaren eskubideak...

• Lehen pentsatzen nuen egungo ekoizpen eta kontsumo ereduari dagokionean norberaren erantzukizun eta konpromisoa...

• Lehen pentsatzen nuen eredu sozialaren eragin...

ORAIN PENSATZEN DUT

• Orain pentsatzen dut Ekuadorreko Amazoniako petrolio erauzketak...

• Orain pentsatzen dut petrolio-erauzketen ondorioak...

• Orain pentsatzen dut herri indigenak...

• Orain pentsatzen dut ingurumenaren eskubideak...

• Orain pentsatzen dut egungo ekoizpen eta kontsumo ereduari dagokionean norberaren erantzukizun eta konpromisoa...

• Orain pentsatzen dut budgetari zer eragiten...

ZONA WAO, LURRA EZ DAGO SALGAI | IRAKASLE GIDA

29

8. Gehiago jakiteko.

Atal honetan erauzketa industriaren, praktika neokolonialisten edo Hegoalde globaleko erresistentzien inguruko material ezberdinak jaso dira, gai hauen inguruan gehiago jakin eta hausnartzen jarraitzeko.

Liburuak

- *Las venas abiertas de América Latina*, Eduardo Galeano.
- *Huaco Retrato*, Gabriela Wiener.

Pelikula eta laburmetraiak

- *También la lluvia*, Icíar Bollaín.
 - *Abuela Grillo*, Denis Chapon.
- https://www.youtube.com/watch?v=AXz4XPuB_BM

Artikulua

- *Osasunaren Petrolizazioa. Ekuadorreko Amazoniako Ekogenozidioaren Sistematizazioa.*
- <https://www.medicusmundi.es/index.php/eu/actualidad/publicaciones/argitalpenak/505>

Instalazio artistikoa

- *España os pide perdón*, Abel Azcona.
- <https://abelazcona.art/espanaospideperdon>

Bideoak

- *¿Qué queda del 12 de octubre en la España de 2024?, La Base Comanche.*
- <https://www.youtube.com/watch?v=s7vqxrHLOZg>

Poema:

- *El sur también existe*, Mario Benedetti.
- <https://www.poemas-del-alma.com/mario-benedetti-el-sur-tam-bien-existe.htm>

Abesti eta bideoklipak

- *Será posible el Sur*, Mercedes Sosa.
- <https://www.youtube.com/watch?v=rxio-hx1g1M>
- *Arriba quemando el sol*, Violeta Parra.
- <https://www.youtube.com/watch?v=Ov3tQ-RX3Jw>
- *A desalambrar*, Daniel Viglietti.
- <https://www.youtube.com/watch?v=BBWVQF8C0yQ>
- *Su madre patria*, Edson Velandia & Adriana Lizcano.
- <https://www.youtube.com/watch?v=t1XJsPdhGWU>
- *This is not América*, Residente.
- <https://www.youtube.com/watch?v=GK87AKIPyZY>

9. Eranskinak.




9. Eranskinak.



9. Eranskinak.



9. Eranskinak.



9. Eranskinak.



9. Eranskinak.



9. Eranskinak.



9. Eranskinak.



9. Eranskinak.

